

Martin Ugalde lagun agurgarria

DBH 2. A [Ikasleak]

Bost Press, 4. zk., 1997-12: 2.

Guk, zure andoaindar lagun gazteok, egun hauetan gauza asko ikasi dugu zutaz. Badakigu gure adina zeneukala gauda zela, eta arazoak izan zenituela familia elkarrekin bizitzeko. Seguraski Andoainetik ateratzea oso gogorra gertatu zitzaizun, baina Venezuelan elkarrekin egoteak indarra eman zizun eta bizi berri bat hasi zenuen. Han, dudarik gabe, jendeak ere maite zaitu, zeren kazetari bezala lan ugari egin zenuen, literatur sariak irabazi zenituen eta hango bizimoduaz bihotzez idatzi zenuen. Zure nobela, antzerki, ipuin eta narrazio pila euskaraz ere argitaratu dira. Guk "Pedrotxo" piska bat ezagutu dugu, Kaletxikitik Zumearaino lagundu dugu eta Andoain zaharra nolakoa zen imajinatu dugu. Eskerrik asko aukera hori emateagatik.

Andoaindarrentzat ohore bat zara, eta "seme kuttuna" izendatu zaitugu. Beti guregan izango zara. Zure azken liburua hemen aurkezteagatik ere mila esker eta batez ere, Andoain bihotzean eramateagatik.

Ea egun batean elkar ikusten dugun.

Agur bero bat.